

LIGETX KOBLAKARIAK

LEHEN PEREDIKUA

1-

Aipatzen den trajerian,
bi bizi dira kürütxatzen
Oihan beltzean bezala
batak bestea gordatzen.

2-

Hogeigerren mente hatsarrean
gerla handi bat partitü
Ondorio gaitzak dira
jente xümeer partekatü.

3-

Frantsimenten ürgüilüaz
xiberoak bildü dü kaldü
Nork ez züan bere familian
gerlan anaie bat galdü.

4-

Denbora haietan Xiberoan
zühürki haboroxeak bizi
Eta azken urteak ziren
non ere eüskara zen nausi.

5-

Koblakari botz ederrenak
bortü gainetan lilitzen
Buxeü xuria ez beita
bortüan baizik laketzen.

6-

Büztanobi familia
Ligetxean da handitü
Hamabi aurridetarik
biga dütügü haütatü.

7-

Luis Ligetx da famatüa
ez merexi züan bezain beste
Madalena bere arrebak
ez dü fama mikorik txeste.

8-

Luis herrotik larraintar
behar üken desterratü
Bere Basabürü maitea
egün oroz nigarstatü.

LEHEN PEREDIKUA

1-

Aipatzen den trajerian,
bi bizi dira gurutzatzen.
Oihan beltzean bezala,
batak bestea gordetzen.

2-

Hogeigarren mende **hatsarrean**
gerla handi bat partitu.
Ondorio gaitzak dira,
jende xumeei partekatu.

3-

Frantximanten urguiluaz
Xiberoak bildu du **ukaldi**.
Nork ez zuen bere familian
gerran anaia bat galdu?

4-

Denbora haietan Xiberoan
zuhurki haboroxeak bizi,
eta azken urteak ziren
non ere euskara zen nagusi.

5-

Koblakari boz ederrenak
bortu gainetan lilitzen,
barrengorri zuria ez baita
bortuan baizik **laketzen**.

6-

Buztanobi familia
Ligetxean da handitu.
Hamabi haurrideetarik,
bi ditugu hautatu.

7-

Luis Ligetx da famatua,
ez merezi zuen bezainbeste.
Madalena bere arrebak
ez du fama **mikorik** dastatu.

8-

Luis errotik larraintar,
behar ukan desterratu.
Bere Basabürü maitea
egun oroz negartu.

hasiera

frantses
kolpegutxi gastatuz
/ gehienakmendi
atsegindu

apur bat

9-

Madalenak behar zūan
ber zortea ezagütü
Emazte hanitxen gisa
sorleküa zūan kitatü.

10-

Madalena hala egon
bere anaiaren itzalean
Plaza-emazterik ez beitzen
plaza-gizon izan dadin.

11-

Norbaiten historia beno
koblakaren trajeria
Agerrarazi nahi dügü
izan den abrekeria.

12-

Tauladatüko deizüegü
beren alegiazko bizia
Otoi izan gurekilan
sogile saldo bizia.

9-

Madalenak behar zuen
ber zortea ezagutu.
Emazte anitzen gisa
sorlekua zuen **kitatu**.

10-

Madalena hala egon
bere anaiaren itzalean,
plaza-emazterik ez baitzen
plaza-gizon izan dadin.

11-

Norbaiten historia baino
koblakaritzaren trajeria
agerrarazi nahi dugu;
izan den aberekeria.

12-

Taularatuko dizuegu
beren alegiazko bizia.
Otoi, **izan** gurekin,
so-egile saldo bizia.

utzi

bertsolaritza

geratu

1. JELKALDIA

XX. mendearen hasiera

Petiri Etxekopar**13-**

Badikiagü eginik
latiez otoitz sobera
Karrikabürüko ardotik
pinta bat merexi bedera.

Estebe Etxeto**14-**

Kasü egin ezak Petiri
apezak badik aingürüa
Entzüten bahaü segurki
jinen zaik «Ligetx saintüa».

Petiri Etxekopar**15-**

Xuriak eta gorriak
godaletetan ditiat hazi
Eliza bidean nian
bortxak baizik ez eküarazi.

Estebe Etxeto**16-**

Heben gure kontseilüan
üzkü xuriak dütüük nausi
Gorritzen bazaik papoa
behar haüe iharrausi!

Batista Ligetx (aita)**17-**

Tziauste aitzina hümeak
ordü sartzeko Ligetxean
Badügü lan egiteko
ez da naiatzen bedatsean.

Aña Etxeto**18-**

Zer xantza düen gizon horiek
koblakan ostatüan hardit
Gük aldiz behar dügularik
etxen egon eta ttattit.

19-

Inglaterran emazteak
hasirik dirade kexatzen
Bozkatzeko ahala ere
ahalkerik gabe galtatzen.

1. JELKALDIA**Petiri Etxekopar****13-**

Baditiagu eginik
latinez otoitz sobera.
Karrikabürüko ardotik
pinta bat merezi **bedera**.

bana

Estebe Etxeto**14-**

Kasu egin ezak, Petiri;
apezak badik aingerua.
Entzuten bahau segurki
jinen zaik "Ligetx saintua".

etorri

Petiri Etxekopar**15-**

Zuriak eta gorriak
godaletetan ditiat hazi.
Eliza bidean nian;
bortxak baizik ez **ekurarazi**.

edalontzi

geldiarazi

Estebe Etxeto**16-**

Hemen, gure kontseiluan,
uzki zuriak dituk nagusi.
Gorritzen bazaik **papoa**,
behar haute **inarrosi**!

papar
astindu**Batista Ligetx (aita)****17-**

Zaurte aitzina, umeak;
ordu sartzeko Ligetxean.
Badugu lan egiteko;
ez da segatzen **bedatsean**.

zatozte
ordua da

udaberri

Aña Etxeto**18-**

Zer **xantza** duten gizon horiek
koblakaritzan ostatuan **hardit**,
guk, aldiz, behar dugularik
etxean egon eta **ttattit**.

zorte
erne

geldi eta isilik

19-

Ingalaterran emazteak
hasirik dira kexatzen,
bozkatzeko ahala ere
ahalkerik gabe **galdatzen**.

lotsa / eskatu

Felixa Elgoihena**20-**

Hori dñn arnegatzea
 heinik ez dñna Margaita
 Hi hiz emazte drolea
 okerra bezain ausarta.

Aña Etxeto**21-**

Birjina zizkatürük üdüri
 dñn hire begitartea
 Hola laketa hiz halabiz
 ni hatüak hontürük banoa.

Felixa Elgoihena**20-**

Hori dun **arnegatzea**.
Heinik ez **duna**, Margarita?
 Hi haiz emazte bitxia,
 okerra bezain ausarta.

birao egin
 neurri/al dun

Aña Etxeto**21-**

Birjina ziztaturik iduri
 dun hire begitartea.
 Horrela laketa haiz. Halabiz!
 Ni, **hatuak** ondurik, banoa.

fardel, maleta

SATANAK

Khüloa

22-

Entzünik düka hik khüloa - bai zer?
 Frantzian den aide gaixtoa - bai ümen!
 Gerlako badüe gogoa - bai tho!
 Ta Xiberoan odol beroa - bai arren!

23-

Xiberotarrak dütük praube - baietz!
 Lüzarantako hala zortea - bai othe?
 Horik segur ontsa züntükea - baia?
 Lehen herrokan igortea! - baietaere!

Phaleta

24-

Mesfida hadi halerik ere - ezetz!
 Erdiak ez beitaki frantsesa - ez eta?
 Nola harraraziko deitsoak - ez zü...
 Frantsesen bide errenbesa - ez deüsak!

Khüloa

25-

Ez dakika nola egin? - ezetz!
 Euskaldün baten ferratzea - ez eta?
 Elizetan kantaraz latia - ez zü...
 Eskolan frantsesaren laüdatzea! - ez deüsak!

26-

Ez inkieta eüskararentako! - bai zer?
 Geroa ez düke bedaroa - bai to!
 Xiberoan ehün urterenbürüan - baia?
 Eüskaldüna dükek arraroa - baita ere!
 Ez dea hala?

SATANAK

Khuloa

22-

-Entzunik **duka** hik, Khuloa? -Bai, zer?
 -Frantzian den aire gaiztoa. -Bai, omen!
 -Gerrarako badute gogoa. -Bai, to!
 -Eta Xiberoan, odol beroa. -Bai, arren!

23-

-Xiberotarrak dituk pobre. -Baietz!
 -Luzerako hala zortea -Bai, ote?
 -Horiek segur ontsa **zenituzkea**... -Baia?
 -...lehen **herronkan** igortzea? -Baita ere!

Phaleta

24-

-Mesfida hadi, halarik ere. -Ezetz!
 -Erdiek ez baitakite frantsesa. -Ez eta?
 -Nola harraraziko zieat... -Ez zuk.
 -...frantsesen bide errebesa? -Ez deusek!

Khuloa

25-

-Ez **dakika** nola egin... -Ezetz!
 -...euskaldun baten ferratzea? -Ez eta?
 -Elizetan, kantaraz latina. -Ez zuk.
 -Eskolan, frantsesaren laudatzea! -Ez deusek!

26-

-Ez kezkatu euskararendako! -Bai, zer?
 -Geroa ez **duke bedaroa**. -Bai, to!
 -Xiberoan, ehun urterenburuan... -Baia?
 -...euskalduna **dukek** arraroa. -Baita ere!
 Ez **dea** hala?

al duk

al zenituzke
 bai?
 lerro

al dakik

izango du
 / sasoi ona
 izango duk
 al da

2. JELKALDIA

Pierra anaia zaharra 1914ko gerrara doa.

Maia Ligetx (ama)**27-**

Jinko hona dük hirekin
 habil trankilki semea
 Ontsa defendatüko dük
 gure lürra den Frantzia.

28-

Erakatsiko dük segurki
 zer den eüskaldün odola
 Alzaza eta Lorraina
 bertan turnatüko hola.

Luis Ligetx**29-**

Ene anaie maitea
 zertako joan behar hükean?
 Nork enekin pausatüko
 txori xederak oihanean?

Pierra Ligetx (anaia)**30-**

Gaixo Luis egon trankil
 arrajinen nük mil esker
 Eta hor ez nizateanean
 egon beha etxekoer.

Pierra Ligetx (anaia)**31-**

Madalenarekin badükek
 hitz joküetan lagüna
Madalena Ligetx
 Alde hortarik ez inkietä
 irabazteko düt kostüma.

Batista Ligetx**32-**

Ene seme gehiena
 memento hau zait gogorra
 Beti inkiet bizitzea
 da amodioaren zorra.

2. JELKALDIA**Maia Ligetx (ama)****27-**

Jainko ona duk hirekin;
 habil trankilki, semea.
 Ontsa defendatuko duk
 gure lurra den Frantzia.

28-

Erakutsiko duk segurki
 zer den euskaldun odola.
 Alsazia eta Lorrena
bertan turnatuko horrela.

Luis Ligetx**29-**

Ene anaia maitea,
zertako joan behar hukeen?
 Nork enekin **pausatuko**
 txori **xederak** oihanean?

Pierra Ligetx (anaia)**30-**

Gaixo Luis, egon trankil;
arrajinen nauk, mila esker.
 Eta hor ez **naizatekeenean**
 egon **beha** etxekoei.

Pierra Ligetx (anaia)**31-**

Madalenarekin badukek
 hitz jokoetan laguna.
Madalena Ligetx
 Alde horretarik ez kezkatu;
 irabazteko dut **kostuma**.

Batista Ligetx**32-**

Ene seme **gehiena**,
 memento hau zait gogorra.
 Beti kezka bizitzea
 da amodioaren zorra.

berehala
 / itzuli

zergatik
 ipini
 sare

itzuli
 nagoenean
 adi

ohitura

zaharrena

3. JELKALDIA

Joffre jenerala

33-

Kuxelüz untsa abiarazirik
gerla hon horren beharra
Pakaraz gustüan gizon xümeer
nazioentako aharra.

Von Hinderberg jenerala

34-

Zer traion elkiko diren
egoxaraz ditzagün baratx-baratx
Murra inkaü bat ütirik
gale bagina arrahas!

Pétain jenerala

35-

Laborari tristant gazte horier
barnarazten dügü arroila
Lau urte badira orai
urte oroz hor dela bitoria.

3. JELKALDIA

Joffre jenerala

33-

Kuxeluz ontsa abiarazirik
gerra on horren beharra.
Pagaraz gustuan gizon xumeei
nazioendako **aharra**.

isilpean

liskar

Von Hinderberg jenerala

34-

Zer egoeratan **ilkiko** diren!
Egosaraz ditzagun **baratxe**-baratxe,
murra inkaü bat utzirik,
gale bagina arrahas!

irten

astiro

txingar / pixka

berriz hasteko

gogoz bagina ere

Pétain jenerala

35-

Laborari triste gazte horiei
barnarazten diegu arroila.
Lau urte badira orain
urte oroz hor dela bitoria.

hondearazi

urte oroz (esaten
dugula) hor dela

GUDUKA

Orai badügu bitoria! Gitean erretira!
 Goitü dügu etsaia! Kapitain güdükaria!
 Jinkoak eman deikün grazia dezagün erremestia!
 Jinkoak eman deikün grazia dezagün erremestia!

GUDUKA

Orai badugu bitoria! Gaitezen erretira!
Goitu dugu etsaia! Kapitain gudukaria!
 Jainkoak eman digun grazia dezagun **erremerzia**!
 Jainkoak eman digun grazia dezagun **erremerzia**!

garaipena

garaitu
eskertu

GERRA ONDOKO AMETSA

Ürzo lepo xuria hona hiz apalik,
 Hirekila jin nintek nik banü hegalik.
 Zohardi diagü eta aidea epelik
 Ez dük bardin aitzina joateko ahalik,
 Pausa hakit aldean, ez dük ene axolik.

Nahi deiat nik erran han zer den ageri,
 Norat nahi soginik orotan hil herri,
 Kürütxe beltz elibat zahar eta berri,
 Bürdün txapel bedera бүрүан jauntsirik
 Ari dütük emaiten esküak algarri.

Pena egiten deitak bihotzaren erdian
 Kürütxe beltz horietaz mintzo hizanean.
 Anaie bat badiat haietarik batean,
 Plazer badük lili bat eraman ützültzean
 Nahi haüt ontsa hazi aurtenko negüan.

Hireki egonen nük negüan gustüan,
 Ogi bihi jan eta lo hegatz pean,
 Liliareki joanen dagün bedatsean,
 Hura moskoan eta nigarra begian
 Pausatüren dioat xüxen kürütxe gainean.

Haren kepia dükek kürütxen gainean
 Ürre galu bateki alde aitzinean.
 Ezar izaok lilia ontsa agerian
 Jenteek ikus dezaten ebiltzen direnean
 Haietaz ohartzen direnak badirela mündüan.

Eta lehen lilia zeikünean jelki,
 Ürzo gazte xuria aidatü tristeki,
 Larraine ere kitatü bost haspereneki,
 Eraman dü lilia moskoan eijerki,
 Gure eskerrik hoberenak besarka handireki.

GERRA ONDOKO AMETSA

Uso lepo-zuria, **hona haiz** apalik.
 Hirekin jin ninteke nik banu hegalik.
 Zohardi diagu, eta airea epelik.
 Ez duk **berdin** aitzina joateko ahalik.
 Pausa hakit aldean; ez duk ene axolarik.

Nahi diat nik erran han zer den ageri:
 noranahi so eginik, orotan hilerri.
 Gurutze beltz **elibat**, zahar eta berri,
 Burdin txapel **bedera** buruan jantzirik,
 ari dituk ematen eskuak elkarri.

Pena egiten zidak bihotzaren erdian
 gurutze beltz horietaz mintzo haizenean.
 Anaia bat badiat haietarik batean.
 Plazer baduk, lili bat eraman itzultzean.
 Nahi haut ontsa hazi aurtengo neguan.

Hirekin egonen nauk neguan gustuan.
 Ogi bihi jan, eta lo **hegatz** pean.
 Liliarekin joanen **daugin bedatsean**.
 Hura mokoan eta negarra begian,
 pausatuko zioat zuzen gurutze gainean.

Haren **kepia** dukek gurutze gainean,
 urre galoi batekin alde aitzinean.
 Ezar iezaioke lilia ontsa agerian,
 jendeek ikus dezaten ibiltzen direnean
 haietaz ohartzen direnak badirela munduan.

Eta lehen lilia zaigunean **jalgi**,
 uso gazte zuria aireratu tristeki.
 Larraine ere **kitatu** bost hasperenekin.
 Eraman du lilia mokoan ederki.
 Gure eskerrik hoberenak, besarkada handiekin.

etorri haiz

agian

batzuk
banateilatu
datorren
udaberrian

txano militar

irten

utzi

4. JELKALDIA

Batista Ligetx**36-**

Berriak hon ditiñagü
entzüten denaren arabera
Ützüli gainti igorririk
diñagü bochen sütea.

Maia Ligetx**37-**

Noiz ordüan zait sartüko
ene semetto galanta
Ez düa aski entzünik
armen herots ta keota?

Jauregi epailea (Larrañeko mera)**38-**

Letera honen kolorea
da seinale mingarria
Hanitxen gisa Pierrak dü
üken zauri hilgarria.

39-

Alzazako bidean joanik
han barnatürük lohi beila
Hire semeak badakik
merexitürük dik bere medaila.

Batista Ligetx**40-**

Hire hitzak honkitzen nik
hori egiazkin berri latza
Nihaurk ezin diat sinetsi
eman düala azken hatsa.

41-

Luis penatürük dikeagü
oso dük bihotz apala
Pierra joan denaz geroz
badik gogoan itzala.

42-

Haurrak egünko jinkoak
Terebükarazten deit fedea
Pierrak beiteikü berriki
hartü zelüko bidea.

Luis Ligetx**43-**

Banakian ontsa zateala
krepaut bochen atzaparra
Mendekatzeko beno dü
kobla hontzeko beharra.

4. JELKALDIA

Batista Ligetx**36-**

Berriak on ditinagu,
entzuten denaren arabera.
Itzuligaindi igorririk
dinagu alemanen sutea.

Maia Ligetx**37-**

Noiz orduan zait sartuko
ene semetto galanta?
Ez **dua** aski entzunik
armen **herots** eta kea?

Jauregi epailea (Larrañeko mera)**38-**

Letra honen kolorea
da seinale mingarria.
Anitzen gisa, Pierrak du
ukan zauri hilgarria.

39-

Alsaziako bidean joanik,
han barnaturik lohian,
hire semeak, badakik,
mereziturik dik bere medaila.

Batista Ligetx**40-**

Hire hitzak hunkitzen nauk.
Hori, egiazki, berri latza.
Nihaurk ezin diat sinetsi
eman duela azken hatsa.

41-

Luis penaturik dikeagu;
oso duk bihotz apala.
Pierra joan denez geroz,
badik gogoan itzala.

42-

Haurrak, **egungo** jainkoak
oztoparazten dit fedea,
Pierrak baitigu berriki
hartu zeruko bidea.

Luis Ligetx**43-**

Banekien ontsa zaretela.
Krepaut alemanen atzaparra
mendekatzeko bainoago dut
kobla ontzeko beharra.

bueltan

al du
zarata

gutun

gaurkoz

lotsagabe

Madalena Ligetx**44-**

Egia dük armarik gabe
indar badüala hitzak
Mendeka ezinean dira
egünko bizitza hitsak.

Madalena Ligetx**44-**

Egia duk armarik gabe
indar baduela hitzak.
Mendeka ezinean dira
egungo bizitza hitsak.

BOXEN KANTOREA

Kantatzera noazü une jolie chanson.
Hura nork hontü beütü c'est un brave garçon
Deitürük izan düzü dans une garnison,
Arren behar partitü bientôt de sa maison.

Moi je suis né en France oi Eüskal Herrian,
D'après ce que je pense, Larraine herrian ;
Bientôt c'est la partance goatzan gustüan
Faire la pénitence errejimentüan.

Guillaume de la Prusse enperadorea,
Pour toi c'est la culbute, traidore handia!
Amène dans ta chute seme Konprintzea
Pour qu'une fois débute traidoreen galtzea.

Ils ont eu du courage Bochen ohiltzeko
Qu'ils s'en aillent en rage haboro ez jiteko!
Pendant tout ce carnage miseria franko,
Que le ciel soit pour gage hil direnentako!

Je ne voudrais pas faire sobera penarik,
Mais je ne puis me taire erran gabetarik
Que j'ai perdu un frère, zorte tristekorik,
Après quatre ans de guerre, zerbait ikusirik.

Joaiten girenean nous ne les verrons plus
herexak baizik ordüan de ceux qui ont vécu.
Pausa zitee bakean, les Boches sont battus,
trankil paradüsüan, c'est Dieu qui l'a voulu.

S'ils nous refont la guerre, ez dükee hoberik,
La France notre mère ez date galdürük ;
Nous vengerons nos frères lotsa gabetarik
car la mort n'effraie guère Eüskaldün semerik.

BOXEN KANTOREA

Kantatzera noa une jolie chanson.
Hura nork ondu baitu c'est un brave garçon
Deiturik izan duzu dans une garnison,
Arren behar partitu bientôt de sa maison.

Moi je suis né en France oi Euskal Herrian,
D'après ce que je pense, Larraine herrian ;
Bientôt c'est la partance goazen gustuan
Faire la pénitence erregimentuan.

Guillaume de la Prusse enperadorea,
Pour toi c'est la culbute, traidore handia!
Amène dans ta chute seme printzea
Pour qu'une fois débute traidoreen galtzea.

Ils ont eu du courage Bochen **ohiltzeko**
Qu'ils s'en aillent en rage haboro ez jiteko!
Pendant tout ce carnage miseria franko,
Que le ciel soit pour gage hil direnendako!

Je ne voudrais pas faire sobera penarik,
Mais je ne puis me taire erran **gabetarik**
Que j'ai perdu un frère, zorte tristekorik,
Après quatre ans de guerre, zerbait ikusirik.

Joaten garenean nous ne les verrons plus
herexak baizik orduan de ceux qui ont vécu.
Pausa zaitezte bakean, les Boches sont battus,
trankil paradisuan, c'est Dieu qui l'a voulu.

S'ils nous refont la guerre, ez dukete hoberik,
La France notre mère ez dateke galdurik ;
Nous vengerons nos frères lotsa gabetarik
car la mort n'effraie guère euskaldun semerik.

egotzi, bota

gabe

aztarna

5. JELKALDIA

Margaita Etxemaite**45-**

Ligetx semea ari zaikü
hürrün hedatzen bere fama
Kobla horiekin barreatzen
eskandalaren ürrina.

Kattalin Etxebarne**46-**

Ni ez nün akort hirekin
beti dün potiko karana
Bekan baizik ez hitzekin
txistatzen bere iskilima.

47-

Herrian gilikatzeke
ahalak badütü ata
‘Ta holako batiri beha
aia egonen nündüñan para.

Maiana Etxebarne**48-**

Entzün hüana jüstenean
ostatüan egin düan kobla
Pariserat joan direnak dütü
adretki honki gisala.

Gaxusa Goihenex**49-**

Egia da debrüaren txestüan
hüsten dela Xiberoa
Ameriketan edo Parisen
hau praubeziaren orroa.

50-

Ez diñat orano entzünik
haren kantore den mendrenik
Eia emaiten düzüenez
txeste phürü nahi niken nik!

5. JELKALDIA

Margaita Etxemaite**45-**

Ligetx semea ari zaigu
urrun hedatzen bere fama,
Kobla horiekin barreiatzen
eskandaluaren urrina.

Kattalin Etxebarne**46-**

Ni ez naun akort hirekin,
beti dun mutiko **karana**.
Bakan baizik ez hitzekin
ziztatzen bere **iskilinba**.

47-

Herrian kilikatzeke
ahalak baditu, **alta**,
eta horrelako bati **beha**
aise egonen nindunan para.

Maiana Etxebarne**48-**

Entzun huena **justenean**
ostatuan egin duen kobla?
Pariserat joan direnak ditu
adretki hunki **gisala**.

Gaxusa Goihenex**49-**

Egia da debruaren **txestuan**
husten dela Xiberoa.
Ameriketan edo Parisen
hau pobreziaren orroa.

50-

Ez dinat oraino entzunik
haren kantore **den mendrenik**.
Ea ematen duzuenez.
Dastatu **puru** nahi niken nik!

eder
gutxitan
orratz

ba
adi

lehengo egunean

trebeki/antza

abiada

batere

behintzat

BONETA ETA TXAPELA

Igaran egün batez egin düğü erri ;
hortaz nahi deizüet eman zerbait berri
Parisetik jin zaikü bidajez Phetiri
urte bakoitz fortuna eginik üdüri.

Agur eta zertan hiz, Phetiri gaizoa,
ene haur denborako kantüko aüzoa?
Igaran dük ordüko denbora gozoa,
eta hi aberastü, ez behiz zozoa.

Parisetik horra nük züen ikustera:
han ontsa bizi gütük, adiskide Pierra.
Hiaurek ikusten dük egin diat afera
txapela ezarri diat бүрүtik behera.

Txapela badük bena arin barnekoa.
non ützi dük buneta, Eüskal Herrikoa?
Txapel horrek ez dereik edertzen kaskoa
basta ederra gatik asto dük astoa.

Ez diat ez axolik laidoen batere ;
han ezagützen diat hanixko andere,
Itxürari soginez aberats bai ere.
Ezkontüren ahal nük: ez erran deus ere.

Arren badük ideia hola ezkontzeko.
Lagün franko badükek hortan segitzeko.
Ofizio bat balitz Parisen hartzeko,
aberats izan gabe, auher bizitzeko.

Ez nük ez hi bezala lanean akitzen ;
lan anplexeagorik dük hirian agitzen.
Ene alde hasi nük Parisen bizitzen
arrüaren xokoan oskien argitzen.

Ofizio ederra, oski argizale!
Har ezak emaztea ziraje saltzale ;
haurrak jinen zaitzüe gose-bazkazale ;
ütziren dük Parise ahal bezain zale.

Ni ja nahi nük egon buneta kaskoan,
ene sorlekü maite Eüskal Herrikoan,
ihork ere jakin gabe zer düdan gogoan,
kobla zonbaiten hontzez sütondo xokoan.

BONETA ETA TXAPELA

Igaran egun batez egin dugu irri;
hortaz nahi dizuet eman zerbait berri.
Parisetik jin zaigu bidaiaz Phetiri.
Urte bakoitz fortuna eginik irudi.

Agur, eta zertan haiz, Phetiri gaixoa,
ene haur denborako kantoiko auzoa?
Igaran duk orduko denbora gozoa,
eta hi aberastu, ez baihaiz zozoa.

Parisetik **horra nauk** zuen ikustera.
Han ontsa bizi gaituk, adiskide Pierra.
Hihaurk ikusten duk: egin diat afera.
Txapela ezarri diat burutik behera.

Txapela baduk, baina arin barnekoa.
Non utzi duk boneta, Euskal Herrikoa?
Txapel horrek ez dik edertzen kaskoa.
Basta ederragatik, asto duk astoa.

Ez diat ez axolarik laidoen batere;
han ezagutzen diat **anixko** andere.
Itxurari so eginez aberats bai ere.
Ezkonduko ahal nauk; ez erran deus ere.

Arren, baduk ideia horrela ezkontzeko,
lagun franko badukek horretan segitzeko.
Ofizio bat balitz Parisen hartzeko,
aberats izan gabe, alfer bizitzeko.

Ez nauk, ez, hi bezala lanean **akitzen**;
lan **anplexeagorik** duk hirian **agitzen**.
Ene alde hasi nauk Parisen bizitzen
kale xokoan **oskien** argitzen.

Ofizio ederra, oski argitzaile!
Har ezak emaztea **ziraia**-saltzaile.
Haurrak jinen zaizkizue gose-bazkatzaile;
utziko duk Paris ahal bezain **zalu**.

Ni ja nahi nauk egon boneta kaskoan,
ene sorleku maite Euskal Herrikoan,
inork ere jakin gabe zer dudana gogoan,
kobla zenbaiten ontzez sutondo xokoan.

etorri nauk

askotxo

bada

nekatu
lasai / gertatu

oinetako

betun

arin

6. JELKALDIA

Batista Ligetx**51-**

Gure etxalde ttipia
ez da ororentako aski
Behar düzüe pentsatü
ezkontzeari preseski.

52-

Hik Madalena bahükean
Etxebarren nahianta
Egin ezan behar dena
segürtatzeko afera.

Madalena Ligetx**53-**

Aita ez nüzü behi bat
badüt ene ürgüilüa
Gotor nahi düt senarra
ttipi lodrot han nausia.

54-

Zertako beti emaztek
behar günüke plegatü
Nik ezkontzea düt hügü
koblakan ni ere laketu.

Batista Ligetx**55-**

Hori diñagü madama
ez hiz Ozaze jaurgainean
Besten maneran behar dün
senar goxo baten bidea.

Luis Ligetx**56-**

Gaixo arreba maitea
ez hiz sortü mente honean
Basabürüaren kitatzeaz
sofritzen düt ene heinean.

57-

Badakiñat hi hizala
betidanik aitazilo
Sütondoan gaü lüzetan
koblaz kobla ez zinden lo!

Madalena Ligetx**58-**

Zonbat gaüaldi sütondoan
kobla kantore ta papaita
Eman deiküenarengatik
milesker ama eta aita.

6. JELKALDIA

Batista Ligetx**51-**

Gure etxalde txikia
ez da ororendako aski.
Behar duzue pentsatu
ezkontzeari preseski.

ezkontzeaz

52-

Hik Madalena bahukeen
Etxebarren **nahianta?**
Egin ezan behar dena
segürtatzeko afera.

hautagai

Madalena Ligetx**53-**

Aita, ez nauzu behi bat.
Badut ene urguilua.
Gotor nahi dut senarra,
txiki **lodrot** han nagusia.

potolo

54-

Zertako beti emazteek
behar genuke plegatu?
Nik ezkontzea dut huguin;
koblakaritzan ni ere **laketu**.

zergatik

gozatu

Batista Ligetx**55-**

Hori dinagu madama;
ez haiz Ozaze jauregian.
Besteen maneran behar dun
senar goxo baten bidea.

Luis Ligetx**56-**

Gaixo arreba maitea,
ez haiz sortu mende onean.
Basabürüaren **kitatzeaz**
sufritzen dut ene heinean.

utzi

57-

Bazekinat hi haizela
betidanik aitazulo.
Sutondoan gau luzeetan
koblaz kobla ez zeunden lo!

Madalena Ligetx**58-**

Zenbat gaualdi sutondoan,
kobla, kantore, eta **papaita**.
Eman digutenarengatik,
milesker ama eta aita.

asmakizun

BASABÜRÜA ETA PETTARRA

Orhin sortü txoriak Orhi dü maitatzen,
Zonbat nahi hürrüntik, harat dü kausitzen
Ni bortü txoria niz, Pettarrean bizitzen
Sorleküa ez beitzait gogotik jelkitzen.

Basabürü gainean zabal da bortüa,
Han dirade garbi, sano aire ezia
Osagarriarentzat lekü tratatüa.
Han da han egiazki irus bizitzea.

Han bizi behar düanak, han behar dik sortü
Kanpotiarrik ez dük orano laketü
Pettarrean nahiago dük Pettarra higatü
Bizia eztiago eramaiten beitu.

Kantatzen hasi denean küküa bortüan
Pettarrer dik erraiten bihotza esküan
Süskerra bezain berde lilien artean
Haien haidürü bezala bertan jin ditean.

Pettar edo menditar, oro bardin gira
Bizitzeko badügü algarren beharra
Bego saihetsealat bekaizteria tzarra
Auher eta aisinantez baitago sobera

Txoriak kaloiatik penuski kantatzen
Sorleküa beitzairo tai gabe oritzen
Batak bestea dügü algar kontsolatzen
Sorleküa gogoan girade isiltzen.

BASABÜRÜA ETA PETTARRA

Orhin sortu txoriak Orhi du maitatzen.
Zenbat-nahi urrundurik, harat du **kausitzen**.
Ni **bortu** txoria naiz, Pettarrean bizitzen,
sorlekua ez baitzait gogotik **jalgitzen**.

Basabürü gainean zabal da bortua.
Han dira garbi, sano, aire ezia.
Osagarriarentzat leku tratatua.
Han da, han, egiazki uros bizitzea.

Han bizi behar duenak han behar dik sortu.
Kanpotarrik ez duk oraino laketu.
Pettarrean nahiago duk Pettarra **higatu**,
bizia eztiago eramaten baitu.

Kantatzen hasi denean kukua bortuan,
pettarrei ziek erraten bihotza eskuan
muskerra bezain berde lilien artean,
haien **aiduru** bezala, bertan jin daitezen:

«Pettar edo menditar, oro berdin gara.
Bizitzeko badugu elkarren beharra.
Bego saihetsera bekaizteria tzarra,
alfer eta **aisiazalez** baitago sobera».

Txoriak kaiolatik penaz kantatzen,
sorlekua baitzaio **tai gabe** oroitzen.
Batak bestea dugu elkar kontsolatzen;
sorlekua gogoan, gara isiltzen.

jo
mendi
irtenosasun
zoriontsu

denbora igaro

zain

alfer

etengabe

SATANAK

Phaleta

59-

Entzünik düka hik küloa
prenda txar horren aide gaitza?
Bere bizian pakatüko dü
piperretan nahi düan gatza!

Khüloa

60-

Emaztea dük betidanik
auher oker eta maleta - PLETI?
Bena gizonen zerbütüan
ez hadila inkiet Phaleta.

61-

Ordre horren segürtatzeko
gerlak eman dü lehen pusa
Bigerren pusa honekilan
badükek orano alargüntsa!

Phaleta

62-

Eüskara ere txainkü ginian
bena frantsesaren epantxüan
Beharrezkoa dük orai
orozbakoz horren zanpatzea.

63-

Hebentik aitzina pentsa egik
ontsa bizitüren salaterra
Xiberotarra oraitik goiti
zankoker eta malaterra!

SATANAK

Phaleta

59-

Entzunik **duka** hik, Khuloa,
prenda txar horren aire gaitza?
Bere bizian pagatuko du
piperretan nahi duen gatza!

Khuloa

60-

Emaztea duk betidanik
alfer, oker eta **maleta**,
baina gizonen zerbitzuan.
Ez hadi inkieta, Phaleta.

61-

Ordena horren segurtatzeko
gerrak eman du lehen **pusa**.
Bigarren pusa honekin
badukek oraino alarguntsa!

Phaleta

62-

Euskara ere **txainku** genian,
baina frantsesaren **epantxuan**.
Beharrezkoa duk orain
orozbakoz horren zanpatzea.

63-

Hemendik aitzina, pentsa egik,
ontsa bizituko salataria.
Xiberotarra **oraindik goiti**
zango-okere eta **malataria**!

al duk

gaizto

bultzada

herren
oztopo

betiko

aurrerantzean
salatari

7. JELKALDIA

Luis Ligetx soldadu doa.

Charles Minjonnet

64-

Koblakari hoberenak oro
egün jüntatü badütügü
Koblako jei hortan dükek
erri, herots ta ülhüngü.

65-

Agurak ontsa eginik
giltza da züen gogoa
Eia zabaltzen düzüenez
bihotzen giltz arrapoa.

66-

-Behinkoz dezagün andereen bertsoa txesta!
-Jinen da horrengatik segür dük tenpesta!
-Non da koblakari bat hain pinpirineta?
-Parean dü ezne gabeko piñuleta!

67-

-Ez da düdarik badüala Mariak odola!
-Senarra segür ere etxen ezin kontsola!
-Iratzarria dikeagü non ez datean ixola!
-Zer parean den heben bahe ta karakola!

68-

-Ez niz jinik honat üdüri erregiña!
-Bena aldiz koblakarien ihakina!
-Nago zer üken düan jarraiki katexima!
-Jinkoak badakike norat igor bere arima!

69-

-Üztarria jauntsirik behiak ez dü espanto!
-Manazaleak behar dü katera franko!
-Amagiñarreba ez düka hik gisako?
-Behi zonbait badira hon bi бүрүентako!

Charles Minjonnet

70-

Zazpi hilabete joanik
kasernalat bizitzera
Konta izadak otoi Luis
nola iragan den armada.

Luis Ligetx

71-

Kantatzera noazü bi berset berriren
düda gabe ez beita gezürrik izanen
Amoregatik-eta denek jakin dezaen
soldadoen bizia nola pasatzen den.

7. JELKALDIA

Charles Minjonnet

64-

Koblakari hoberenak oro
egun juntatu baditugu,
koblako jai horretan dukek
irri, **herots** eta **uhulgu**.

65-

Agurak ontsa eginik,
giltza da zuen gogoa.
Ea zabaltzen duzuenez
bihotzen giltzarrapoa.

66-

-Behingoz dezagun andereen bertsoa dastatu!
-Jinen da horrengatik, segur duk, **tenpesta**!
-Non da koblakari bat hain pinpirineta?
-Parean du esne gabeko **piñuleta**!

67-

-Ez da dudarik baduela Mariak odola!
-Senarra segur ere etxean, ezin kontsola!
-Iratzarria dikeagu, non ez datekeen **isola**!
-Zer parean den hemen: barea eta karakola!

68-

-Ez naiz jinik honat, **irudi** erregina!
-Baina, aldiz, koblakarien **ihakina**!
-**Nago** zer ukan duen jarraiki katiximari!
-Jainkoak **badakike** norat igor bere arima!

69-

-Uztarria jantzirik, behiak ez du **espantu**!
-**Manatzaileak** behar du **katera** franko!
-Amaginarreba ez **duka** hik gisako?
-Behi zenbait badira on bi bururendako!

Charles Minjonnet

70-

Zazpi hilabete joanik
kasernarat bizitzera,
konta iezadak, otoi, Luis,
nola iragan den armada.

Luis Ligetx

71-

Kantatzera noazu bi bertset berriren,
duda gabe ez baita gezurrik izanen,
amoregatik-eta denek jakin dezaten
soldaduen bizia nola pasatzen den.

zarata / trumoi

ekaitz

budin

euri-erauntsi

bai baitirudi
imitazio
jakin nahi nuke
jakingo du

beldur
agintari / izaera
al duk

kuartel

helburuz

72-

Kasernako bizia izate ederra!
 Lan güti egiteko, hanixko afera!
 Manatzeko badüğü gradatüz leherra
 beldürrez ez dezagün egin lan sobera.

73-

Lana akabi eta non düğü Dürrüti?
 Kantinalat joan zaigü debrüek hartürrik,
 «Adjüdan» ezdeüs batek auher atzamanik
 Bost-sei egün «consigne» badüke segurik.

74-

Etxebest kosinera, erri bat hortzetan
 Kantinalat jin zaigü lapin bat kolkoan
 «Zer debrü ari zizte hor pentsamentükan
 Aihaltü behar düğü gaur algarrekilan.»

75-

Zonbait partida eginik, zonbait pinta edan
 Denak hasten girade kantüz eta dantzan
 Mutxikoak eman dütüğü Xiberoko modan,
 Oi zer püntü xüxenak mozkortü ondoan!

76-

Tronpeta ari zaigü «appel» aren joiten
 Trago bat edan eta denak parti gaiten
 Irrintzin eder batez «quartier»-a arangatzen
 Güzier dügülarik gaü hon desiratzen.

Charles Minjonnet

77-

Berxea batü hitzeikü
 koblakari amiragarria
 Hire hitzez troxatürrik
 han ginela üdüri zian.

72-

Kasernako bizia, izate ederra!
 Lan gutxi egiteko, **anixko** afera!
 Manatzeko badugu graduatuz **leherra**,
 beldurrez ez dezagun egin lan sobera.

askotxo
 oparo

73-

Lana akabatu, eta non dugu Durruti?
 Kantinarat joan zaigu deabruak harturik.
 Aiutari ezdeus batek alfer atzemanik,
 bost-sei egun eginkizuna baduke segurik.

74-

Etxebest kozinaria, irri bat hortzetan,
 kantinarat jin zaigu **lapin** bat kolkoan.
 «Zer deabru ari zarete hor pentsamenduan?
 Afaldu behar dugu gaur elkarrekin».

untxi

75-

Zenbait partida eginik, zenbait pinta edan,
 denak hasten gara kantuz eta dantzan.
Mutxikoak eman ditugu Xiberoko modan.
 Oi zer puntu zuzenak mozkortu ondoan!

mutil-dantza

76-

Tronpeta ari zaigu deiaren jotzen.
 Trago bat edan eta denak parti gaitezen.
 Irrintzi eder batez **kartierra arangatzen**,
 guztiei diegularik gau on desiratzen.

auzo / agurtu

Charles Minjonnet

77-

Pertza batu zaiguk,
 koblakari **amiragarria**.
 Hire hitzez **troxaturik**,
 han ginela irudi zian.

miresgarri
 bildu

8. JELKALDIA

Felixi Iriart

78-

Adiskideak egün hon
aspalditik kürütxatzeko
Paradarik ez dügü ükenik
beiniz senarraren menpeko.

Maddia Akozeberri

79-

Ni ez nün orano ezkontürük
bena Idauzerat joanik
Jauntto txar baten neskato
ñapür dena betidanik.

80-

Ahal düalarik kausitzen dü
enekin bera egoitera
Eta indarrez bortxatzen
bekatü denaren egitera.

Madalena Ligetx

81-

Gaixo haurra ez dün xantzarik
holakoetan agitzeko
Hire leküan banintzan
hatüak nüntüan hortüko.

Maddia Akozeberri

82-

Ez da uste bezain aisa
ez düt ez lür ta ez etxe
Sosa oro jaunttoarentako
eta nik ahoan kürütxe.

Madalena Ligetx

83-

Ni deitzen niz Madalena
izen ederra da hori!
Ametza düt koblakari
ta bukatan naüe jarri!

Anastasia Urhe

84-

Gogoarekin ezkapatzen,
ahal zira zure gisa
Hitzekin ez dügü denek
zure joaiteko balisa.

85-

Ene madama ere dün
düdarik gabe karuña
Izengoiti batekin naü
deitzen auher trapuzina.

8. JELKALDIA

Felixi Iriart

78-

Adiskideak, egun on!
Aspalditik gurutzatzeko
paradarik ez dugu ukanik,
bainaiz senarraren menpeko.

Maddia Akozeberri

79-

Ni ez naun oraino ezkondurik,
baina Idauzerat joanik
jauntto txar baten neskato,
ñapur dena betidanik.

80-

Ahal duelarik **kausitzen** du
enekin bera egotera,
eta indarrez bortxatzen
bekatu denaren egitera.

Madalena Ligetx

81-

Gaixo haurra, ez dun **xantzarik**
horrelakoetan **agitzeko**.
Hire lekuan izan banintz
hatuak nitinan onduko.

Maddia Akozeberri

82-

Ez da uste bezain aise;
ez dut ez lur eta ez etxe.
Sosa oro jaunttoarendako,
eta nik ahoan gurutze.

Madalena Ligetx

83-

Ni deitzen naiz Madalena.
Izen ederra da hori!
Ametza dut koblakari
eta **bokatan** naute jarri!

Anastasia Urhe

84-

Gogoarekin eskapatzen
ahal zara zure gisa.
Hitzekin ez dugu denek
zure joateko **baliza**.

85-

Ene madama ere dun
dudarik gabe **karruina**.
Izengoiti batekin nau
deitzen alfer **trapuzina**.

ahozuri

lortu

zorte
gertatu

fardel, maleta

arropa-garbitze

maleta

ematxar

mihi-gaizto

Madalena Ligetx**86-**

Egün batez jeikiko da
egiazko xiberotarsa
Tiranoen ohiltzeko
kantore huna günükeana!

Madalena Ligetx**86-**

Egun batez jaikiko da
egiazko **xiberotarsa**,
tiranoen **ohiltzeko**.
Kantore ona genukeena!

xiberotar andre
egotzi, bota

9. JELKALDIA

Ohitx

87-

Ai zer plazera lagünak
gerla bat gure gibelean
Gure eztei lagün tropa
orai üdorotan joan dadin.

88-

Behar bezala algarrekin
eztei sasua abiatüko
Ta biharamen goizarekin
uinhu zopa gozatüko.

Sala Larraine

89-

Badakiagü hi hizala
gütarik gizon sotilena
Bena hitzen erabilteko
mündü hontan hoberena.

Luis Ligetx

90-

Badiat jüstokin plantatürük
ene ustez kantore hon bat
Egün lehentze emanik
beharriak zabal eta behat!

9. JELKALDIA

Ohitx

87-

Ai zer plazera, lagunak!
Gerra bat gure **gibelean**.
Gure eztei-lagun tropa
orain uda orotan joan dadin.

88-

Behar bezala elkarrekin
eztei sasoia abiatuko,
eta biharamun goizarekin
tipula-zopa gozatuko.

Sala Larraine

89-

Bazekiagu hi haizela
gutarik gizon sotilena,
baina hitzen erabiltzeko
mundu honetan hoberena.

Luis Ligetx

90-

Badiat **justuki** plantaturik
ene ustez kantore on bat.
Egun **lehentze** emanik,
belarriak zabal eta **beha**!

atzean

lehen aldiz
entzun

OIHAN BELTZEAN

Oihan beltzean zoinen eijer den
osto berdea jelkitzen!
Han entzün dütüt egün goizean
txoriak kantüz erraiten,
Bi bihotz gazte amodioak
egün dütüala jüntatzen ;
Boztariotan sartü niz eta
orai hasten niz kantatzen.

Espos esposer oroen partez
ohore eta goraintzi!
Egün düzüen amodioa
bizi zideno ez ützi!
Nahi-gabeetan parte har
eta plazerak ez berantetsi!
Irus izate ederrenean
nahi dügü ziteen bizi.

Esposa gazte baten erhian
zoin eijer den erhaztuna!
Harek beitiö mutiko gazteer:
«Ez ziteela ingana!
Senar hon baten edireiteko
egün izan düt fortuna,
Hari emanik bihotza oso
bai eta gaztetarzuna.»

Txori eijerrak egiten dizü
elorritzean habia
Espos esposak gazte lagüner
eman deie etsenplüa,
Berantü gabe ber ürratsari
oro ditean abia,
Baratzen denak üdüri beiti
lantare üztagabea.

Adios züer, espos esposak,
üzten zütüet bakean.
Zelüko Jaunak lagünt zitzela
hartü düzüen bidean,
Igaraileak ikus zitzela
urte zombaiten bürüan
Amatto haur bat altzoan
eta aita laueki lanean.

OIHAN BELTZEAN

Oihan beltzean zeinen eder den
hosto berdea **jalkitzen!**
Han entzun ditut egun goizean
txoriak kantuz erraten
bi bihotz gazte amodioak
egun dituela juntatzen.
Bozkarioan sartu naiz, eta
orain hasten naiz kantatzen.

Espos-esposei, oroen partez,
ohore eta goraintzi!
Egun duzuen amodioa
bizi **zareteno** ez utzi!
Nahigabeetan parte har,
eta plazerak ez berantetsi!
Uros izate ederrenean
nahi dugu zaitezten bizi.

Esposa gazte baten **erian**
zein eder den eraztuna!
Hark baitio mutiko gazteei:
«Ez zaitezela engana!
Senar on baten **edireteko**
egun izan dut fortuna.
Hari emanik bihotza oso
bai eta gaztetasuna.»

Txori ederrak egiten du
elortzan habia.
Espos-esposek gazte lagunei
eman diete etsenplua,
berandu gabe ber urratsari
oro daitezen abia,
baratzen denak irudi baitu
landare **uztagabea**.

Adios zuei, espos-esposak,
üzten zaituztet bakean.
Zeruko Jaunak lagun zaitzatela
hartu duzuen bidean.
Iragaileak ikus zaitzatela
urte zenbaiten buruan
amatto haur bat altzoan,
eta aita laurekin lanean.

erori

zareten arte

zoriontsu

hatz

aurkitu

geratu
uztatu gabe

bidean doana

Beñat Etxebest**91-**

Alageratü düzüe
egünko besta ederra
Otsez Ligetx heben dügü
koblakari ez auherra!

Margarita Marty**92-**

Ardu soberakinari da
kobla hona erremedio
Egin opariarentzat
soldata ez da kario.

Ohitx**93-**

Orai gustüan behar diagü
gaüa xuritü eta maskau
Tzintzarrotsen ahaidetan
goiz azkorrian briu brau.

Luis Ligetx**94-**

Ez dakiat tzintzarrotsetan
hor denez gure leküa
Nor gira gü erraiteko
zer den bide ordokia?

Beñat Etxebest**91-**

Alegeratu duzue
egungo besta ederra.
Hotsez Ligetx hemen dugu,
koblakari ez alferra!

Margarita Marty**92-**

Ardo soberakinari da
kobla ona erremedio.
Egin opariarentzat,
soldata ez da **kario**.

Ohitx**93-**

Orain gustuan behar diagu
gaua zuritu eta **maskaratu**,
zintzarrotsen **ahairetan**
goiz **azkorrian** briu-brau.

Luis Ligetx**94-**

Ez zekiat zintzarrotsetan
hor denez gure lekua.
Nor gara gu errateko
zer den bide **ordokia**?

Ligetx izenekoa

ordain / garesti

mozorrotu
doinu
egunsenti

lau

PEYRETINEN KANTOREA

Peyretine xahartü, traxtüa ziozü pelatü
 Peyretorek nahi diozü xatorra reforgatü

Peyretine leihoan urdan kaka bat ahoan
 Peyretori emanen diozü tripota delakoan

Peyretine zirintü, gaztaña berde jan beitü
 Peyretorek behar dizü ürrin ederrik senditü

Oilo beltza kokodatzez errün eta kanpoalat
 Peyretine badoazü üzkerrotsez ohealat.

PEYRETINEN KANTOREA

Peyretine zahartu, trastua dio pelatu.
 Peyretorek nahi du satorra gogortu.

Peyretine leihoan, urdanga-kaka bat ahoan.
 Peyretori emanen dio **tripota** delakoan.

Peyretine zirindu, gaztaina berde jan baitu.
 Peyretorek behar du **urrin** ederrik sentitu.

Oilo beltza **kokodatzez** errun, eta kanporat.
 Peyretine badoa uzker-hotsez oherat.

odoloste

usain

kakaraka

10. JELKALDIA

Madalena Ligetx

95-

Züen bertsoz entzüteak
betatzen ene ametsa
Kültür alorrari gük ere
ütziko deiogü herexa.

96-

Aña debrüarekin hasirik
izen hortan bada gatz
Bertsolari modernen zopan
zünüke heroiaeren hatsa.

Aña Debrüa

97-

Ez da oroen gustüko
emazte bertsokan ariz
Azken menteetan izan da
gure presentzia milafri.

98-

Elizatiar eta jauntto
dioie ni nizala befo
Itsusi eta ezin heziz
hain nahi naüe menpeko.

Mari Luixa Erdozio

99-

Bada orai mente franko
eta beti ber peredikü
Befoetarik bagina
berak dira segur piku.

Mariana Hargain Etxepare

100-

Noiztenka honartürük gira
balin badüe gogoa
Bena haiek düe haütatzen
honartzen zaikün barrioa.

Madalena Ligetx

101-

Lotsatzen hasirik beitira
bertsoan galdürük abantaila
Erhiaren ez txistatzeko
dendariak ere ditarea.

102-

Ditare gisa badüe
apeza eta eliza
Heben Xiberoan da sordei
geroa da oso hitsa.

10. JELKALDIA

Madalena Ligetx

95-

Zuen bertsoz entzuteak
betetzen ene ametsa.
Kultur alorrari gük ere
utziko diogu **herexa**.

96-

Aña Debrüarekin hasirik,
izen horretan bada gatz.
Bertsolari modernoan zopan
zenuke heroiaeren hatsa.

Aña Debrüa

97-

Ez da oroen gustuko
emazte bertsoka ariz.
Azken mendeetan izan da
gure presentzia ugari.

98-

Eliztar eta jauntto
diote ni naizela **befo**,
itsusi eta ezin heziz
hain nahi naute menpeko.

Mari Luixa Erdozio

99-

Bada orain mende franko
eta beti ber prediku.
Befoetarik bagina,
berak dira segur **piko**.

Mariana Hargain Etxepare

100-

Noiztenka onarturik gara
baldin badute gogoa,
baina haiek dute hautatzen
onartzen zaigun barrioa.

Madalena Ligetx

101-

Lotsatzen hasirik baitira
bertsoan galdurik abantaila,
eriaren ez ziztatzeko
dendariak ere titarea.

102-

Titare gisa badute
apaiza eta eliza.
Hemen, Xiberoan da **sordei**;
geroa da oso **hitsa**.

aztarna

Marina Etxegarai

ezpain-lodi

moko-aho

noizbehinka

plaza

txar
triste

103-

Eüskaldünen biltzarreko
han da lekü berezia
Sar ginate heltü bada
erabiltez abilezia.

104-

Xiberoan zen koblaka
kasik beitzaikü agortü
Emazteen sartzea ez da
agian orano ilortü.

103-

Euskaldunen biltzarreko,
han da leku berezia.
Sar ginateke, heldu bada,
erabiltzez abilezia.

104-

Xiberoan zen koblakaritza
kasik baitzaigu agortu,
emazteen sartzea ez da
agian oraino **ilortu**.

abortatu

11. JELKALDIA**Luis Ligetx****105-**

Ttipitik etxen ikasirik
koblakaren adrezia
Anaiak beno arrebak
badü ene trebezia.

106-

Ene arreba gazteena
tai gabe ari da koblaka
Eta jakin ezak Ohitx
rimak ez direla kordoka.

Ohitx**107-**

Emazteek ez düe lekürük
gure gizon bilkuretan
Ez dük haratik ez honatik
hi hiz jenteen bihotzetan.

Madalena Ligetx**108-**

Oilo goizik bantatüa
bertan büztana erori zioa
Gizonaren ürgüilüa
da koblakariaren etsaia.

Sala Larraine**109-**

Nik uxutü nahi nitek
koblakan dügün amaña
Aspalditik lo beigira
üdüri ñeñe batek ñiña.

110-

Xiberoan koblakariak
züetarik kanpo dütüük bekantzen
Ez zünükeea ahal
gaztetto zonbait formatzen?

Panpale Luhuso**111-**

Leküak karioxka dira
eta gü aisago bizitzen
Ehün bat liberarekin
gizenki düe pakatzen.

Madalena Ligetx**112-**

Agertzen hiz zartagiña
zaharra bezain gurmanta
Gabeak beitü hatsa karats
joanen da galtzez koblaka.

11. JELKALDIA**Luis Ligetx****105-**

Txikitik etxean ikasirik
koblakaritzaren **adrezia**,
anaiak baino arrebak
badu ene trebezia.

106-

Ene arreba gazteena
tai gabe ari da koblakaritzan,
eta jakin ezak, Ohitx,
errimak ez direla **kordoka**.

Ohitx**107-**

Emazteek ez dute lekurik
gure gizon bilkuretan.
Ez duk haratik ez honatik;
hi haiz jendeen bihotzetan.

Madalena Ligetx**108-**

Oilo goizik **bantatua**
bertan buztana erori zitzaioan.
Gizonaren urguilua
da koblakariaren etsaia.

Sala Larraine**109-**

Nik uxatu nahi nitek
koblakaritzan dugun amarauna,
aspalditik lo baikara.
Irudi **nini** batek **ñiña**.

110-

Xiberoan koblakariak
züetarik kanpo dituk **bakantzen**.
Ez **zenuketea** ahal
gaztetto zenbait formatzen?

Panpale Luhuso**111-**

Lekuak **karioxka** dira
eta gu aiseago bizitzen.
Ehun bat liberarekin
gizenki dute pagatzen.

Madalena Ligetx**112-**

Agertzen haiz zartagin
zaharra bezain **gormanta**.
Gabeak baitu hatsa **karats**,
joanen da galtzez koblakaritza.

trebezia

eten gabe

kolokan

goretsi

haur / kuluxka

urritu
al zenukete

garestitxo

sabelkoi
garratz

Constantin sendagilea**113-**

Zertako ote behar da
inkietatü hor hizano
Halaxek aharratzea
gure artean ez da sano.

Madalena Ligetx**114-**

Koblakarien mündüa
ez da aitzinatzen egün
Mente baten bürüan agian
Madalena bat txapeldün.

Constantin sendagilea**113-**

Zertako ote behar da
inkietatu hor **haizeno?**
Halaxe **aharratzea**
gure artean ez da sano.

Madalena Ligetx**114-**

Koblakarien mundua
ez da aitzinatzen egun.
Mende baten buruan, agian,
Madalena bat txapeldun.

haizen artean
liskartu

12. JELKALDIA

Euskaldunen biltzarra Atharratzen.

Aita Lhande**115-**

Aspalditik Luis egün
gure bideak kürützatzen
Euskaldün hanitx bagütük
lehentze Xiberoan biltzen.

Luis Ligetx**116-**

Goxo zait ikustea
Euskaldün ororen meza
Egün lehentze argi diat
ni ez nizala frantsesa.

Constantin sendagilea**117-**

Arrazu dük berriz Luis
euskaldüna fededüna
Gure aberri bakotxa
beitügü jinkoarena.

Maddalena Jauregiberri**118-**

Eder eta argi arropak
eta ez lanpüts ezpatak
Bena bardin ederrenak
Xiberotarren frisatak.

Luis Ligetx**119-**

Ene lagun bizkaitarra
hon izan da batzarria?
Gure gisa heben plaza
ez da orotan ordokia!

Jose Luis Etxeberria "Txelu"**120-**

Afaldu eta gero ba
belaun zonbaitek kurrinka
Bena gizon bizkaitarra
inoiz ez da ari zinkaz.

121-

Ez zaituztet konprenitzen
zertako frantses bandera
Guk españulen bandera
igorri dugu behera.

12. JELKALDIA**Aita Lhande****115-**

Aspalditik, Luis, egun
gure bideak gurutzatzen.
Euskaldun anitz bagaituk
lehentze Xiberoan biltzen.

Luis Ligetx**116-**

Gozo zait ikustea
euskaldun ororen meza.
Egun lehentze argi diat
ni ez naizela frantsesa.

Constantin sendagilea**117-**

Arrazoi duk berriz, Luis,
euskalduna, fededuna,
gure aberri **bakoitza**
baitugu jainkoarena.

Maddalena Jauregiberri**118-**

Eder eta argi arropak,
eta ez **lanputs** ezpatak,
baina **berdin** ederrenak
xiberotarren **frisatak**.

Luis Ligetx**119-**

Ene lagun bizkaitarra,
on izan da **batzarria**?
Gure gisa, hemen plaza
ez da orotan **ordokia**!

Jose Luis Etxeberria "Txelu"**120-**

Afaldu eta gero, ba,
belaun zenbaitek kurrinka,
baina gizon bizkaitarra
inoiz ez da ari **zinkaz**.

121-

Ez zaituztet konprenitzen
zertako frantses bandera.
Guk espainolen bandera
igorri dugu behera.

lehen aldiz

bakar

kamuts
agian
dantza-jauzi

harrera

lau

irrintzika

Luis Ligetx

122-

Gure dantza errejentak
dü aspalditik ützi gei
Hogei bat urterenbürüan
mentüz ützi aburrei.

Luis Ligetx

122-

Gure dantza **errejentak**
du aspalditik **utzigai**
Hogei bat urterenburuan
menturaz **utziko aburrell.**

[zuzendari](#)
[uztekoa](#)

[alferrik galdu](#)

BIZKAITAR EUSKALDUN ELIBATI

Bilbaotik jin dira zer jente nobleak!
 Ezagütü beharrez askazi maiteak.
 Goatzan haier бүрүз, eta eman eskuak
 Agur hegoaldeko anaie maiteak!

Ber habiatik jelki txoriñoen bardin,
 Txori batek mugarik ote düa Orhin?
 Zedarririk badela ez düalakoz jakin
 Gora Euskadi! oihüz dügü solaz egin.

Oharmentx gozo bat ütüz Atharratzen,
 Bilbaoko txoriak dira hegaltatzen ;
 Gure goraintzi hon bat zaie jarraitzen,
 Ez zirela arrotzak orai ikus dezaen.

BIZKAITAR EUSKALDUN ELIBATI

Bilbotik jin dira; zer jende nobleak!
 Ezagutu beharrez **askazi** maiteak.
 Goazen **haiei buruz**, eta eman eskuak.
 Agur, hegoaldeko anaia maiteak!

Ber habiatik **jalgi** txoriñoen berdin,
 txori batek mugarik ote du Orhin
zedarririk badela ez duelakotz jakin?
 «Gora Euskadi!» oihuz dugu solaz egin.

Oharmen gozo bat ütüz Atharratzen,
 Bilboko txoriak dira hegaldaten.
 Gure goraintzi on bat zaie jarraitzen,
 ez zirela arrotzak orain ikus dezaten.

batzuk

ahaide
haienganantz

irten

muga

13. JELKALDIA**Luis Ligetx****123-**

Bada urte andana bat
ari nizala koblakan
Orai ene ustez ordü da
lekü hori üt z dezadan.

Maiana Arhanzet**124-**

Konprenitzen haüt aisaxka
heben ere beitük lana
Koblakan üsü hiz joanik
eta bardin akodiña.

125-

Inkiet nük beste aldetik
düan osagarri flaküaz
Artzaingoan egon hadi
goza hire familiaz.

Luis Ligetx**126-**

Ez da hain aisa baztertzen
koblaka beitzakü droga
Bena norbait trebatüren
nahiant bat balin bada.

127-

Orai üda hortxek dügü
joanen niz botzik bortüalat
Haurrer barbau istoria bat
eta joan ditean ohealat.

13. JELKALDIA**Luis Ligetx****123-**

Bada urte andana bat
ari naizela koblakaritzan.
Orain, ene ustez, ordu da
leku hori utz dezadan.

Maiana Arhanzet**124-**

Konprenitzen haut aisexka,
hemen ere baituk lana.
Koblakaritzan usu haiz joanik,
eta berdin **akodiña**.

125-

Inkieto nauk, beste aldetik,
duan **osagarri** flakoaz.
Artzaingoan egon hadi;
goza hire familiaz.

Luis Ligetx**126-**

Ez da hain aise baztertzen,
koblakaritza baitzaigu droga,
baina norbait trebatuko
nahiant bat baldin bada.

127-

Orain uda hortxe dugu;
joanen naiz pozik **borturat**.
Haurrei **barbau** istorio bat,
eta joan daitezen oherat.

buruhauste

osasun

hautagai

mendi
mamu

ARTZAINEN KANTOREA**Errepika**

Bostmendi, Orhi, Phixta, haiekin Holtzarte
 Larraine zabalean hain eder dirade!
 San Jüsef haien erdian denek begirale,
 Olatiarrak eginez beti eüskalzale.

Bedatsean eijer da oihanean bagoa,
 Ekiari hedatzen lehen bedats-ostoa ;
 Arteka ezagün da küküaren mintzoa,
 Hegatzetik kortekan dago etxe ürzoa.

Lilirik eijerrenak jelki direnean,
 Bedatsea mintzo da arrosa esküan,
 Bai eta kantüz ari txorien artean
 Sasoi ederragorik ez dela urtean.

Üdak arrapostüa: «Jar hadi heinean!
 Gaztetto behiz ez sar, otoi, ürgüilüan!
 Badüka jatekorik deüs ere etxean?
 Ogiak zohi dütük ene alorrean.»

Üdak bedatseari: «Jaunsten diat txapela,
 Errek eiherazainer biziko direla ;
 Bedaka hortan zitak berotü kapela,
 Errespetatzen diat hik eman itzala.»

ARTZAINEN KANTOREA**Errepika**

Bostmendi, Orhi, Phixta, haiekin Holtzarte.
 Larraine zabalean hain eder dira!
 San Jüsef haien erdian; denek begirale,
olatiarrak eginez beti euskaltzale.

Bedatsean eder da oihanean pagoa.
 Ekiari hedatzen lehen bedatse-hostoa.
 Arteka ezagun da kukuaren mintzoa.
Hegatzetik gorteatzen dago etxe-usoa.

Lilirik ederrenak **jalgi** direnean,
 bedatsea mintzo da arrosa eskuan,
 bai eta kantuz ari txorien artean,
 sasoi ederragorik ez dela urtean.

Udak arrapostua: «Jar hadi **heinean!**
 Gaztetto baihaiz, ez sar, otoi, urguiluan!
Baduka jatekorik deus ere etxean?
Ogiak zori dituk ene alorrean.»

Udak bedatseari: «Janzten diat txapela,
 Esaiek **eiherazainei** biziko direla.
Bedaka horretan zaidak berotu kapela;
 errespetatzen diat hik eman itzala.»

larraintar

udaberri

teilatu

irten

egoera

ba al duk
gari / helduerrotari
belar-lan

14. JELKALDIA**Kenero****128-**

Orai hüilan mente bada
aharratzen ari girela
Lüzarako bizi dadin
gure arteko bordela!

Trapuzina**129-**

Inportantena ez dea
ahatz dezaen mintzajea
Aiten aitek jorratürik
üzten da orai bidea.

Txirribixket**130-**

Azken koblakariak joanik
bekantzen ere maskaradak
Frantses eta españültürik
ditiagü orai eüskaldünak.

Txarapatero**131-**

Azken pusa bat emanik
eta plegatürik da afera
Gure bataila faltsüek
düe ehaiten eüskara.

14. JELKALDIA**Kenero****128-**

Orain **hurran** mende bada
aharratzen ari garela.
Luzaroko bizi dadin
gure arteko burdela!

Trapuzina**129-**

Inportanteena ez **dea**
ahantz dezaten mintzaira?
Aiten aitek jorraturik,
uzten da orain bidea.

Txirribixket**130-**

Azken koblakariak joanik,
bakantzen ere maskaradak.
Frantses eta espainoldurik
ditiagu orain euskaldunak.

Txarapatero**131-**

Azken pusa bat emanik,
eta **plegaturik** da afera.
Gure bataila faltsuek
dute **eraiten** euskara.

ia
liskartu

al da

menderatu
erail

GUDUKA

Orai badüğü bitoria!
 Gitean erretira!
 Goitü düğü etsaia!
 Kapitain güdükaria!
 Jinkoak eman deikün grazia
 dezagün erremestia!

Ttarttalet**132-**

Izenak kanbiat ditzagün
 batailak oro ahatzerik
 Orai gira esküin/ixker
 gorriak'ta xuriak ützirik.

GUDUKA

Orain badugu bitoria!
 Gaitezen erretira!
 Goitu dugu etsaia!
 Kapitain gudukaria!
 Jainkoak eman digun grazia
 dezagun **erremzeria!**

Ttarttalet**132-**

Izenak kanbia ditzagun
 batailak oro ahantzirik.
 Orain gara eskuin-ezker
 gorriak eta zuriak utzirik.

eskertu

15. JELKALDIA

Zugun

133-

Ikusten düka gazte hori
orai lo dena kurrunka
Adesa bere kantoreekin
ezagün zian bere kanka.

134-

Atzamanik düka Ligetx
hire koblakari ordaria
Honek badik ene ustez
hitzez segur nesearia.

Etxahun Iruri

135-

Elizarentako badiat
behar den errespetua
Haatik sekulan ez nukek
hi bezala üzku xuria.

Luis Ligetx

136-

Jüstokin hori ginian eskaz
gazte baten ausarkeria
Ofizialki izentatzen
haüt gorrien koblakaria.

Etxahun Iruri

137-

Ohore bat enetako
hoberenarekin ikastera
Hire manaspenean nukek
alde hortarik ez düda.

Luis Ligetx

138-

Lagün hon izanen gütük
hirekin beinaz laketurik
Hire mihia ez dükek
sekulan ere lanpüsturik.

139-

Segür nük hire denbora
markatüko dük azkarki
Hitaz badükek pastoral bat
eta ez nukek beaxti.

Etxahun Iruri

140-

Ni nük gizon ordenaria
hi bezala laborari seme.
Borges handi horietan dü
pastoralak hartzen berme.

15. JELKALDIA

Zugun

133-

Ikusten **duka** gazte hori
orain lo dena kurrunka?
Berehala bere kantoreekin
ezagun zian bere oihua.

134-

Atzemanik **duka** Ligetx
hire koblakari **ordaria**?
Honek badik, ene ustez,
hitzez segur beharizana.

Etxahun Iruri

135-

Elizarendako badiat
behar den errespetua.
Haatik, sekulan ez nitek
hi bezala uzki zuria.

Luis Ligetx

136-

Justuki hori genian eskas;
gazte baten ausarkeria.
Ofizialki izendatzen
haut gorrien koblakaria.

Etxahun Iruri

137-

Ohore bat enetako
hoberenarekin ikastera.
Hire **manaspenean** nitek;
alde horretarik ez duda.

Luis Ligetx

138-

Lagun on izanen gaituk,
hirekin bainaz **laketurik**.
Hire mihia ez dukek
sekulan ere **lanpusturik**.

139-

Segur nauk; hire denbora
markatuko duk azkarki.
Hitaz baduekek pastoral bat,
eta ez nitek bekaizti.

Etxahun Iruri

140-

Ni nauk gizon arrunta,
hi bezala laborari seme.
Borges handi horietan du
pastoralak hartzen berme.

al duk

al duk
ordain

aginpide

atseginez

kamustu

16. JELKALDIA**Luis Ligetx****141-**

Indarrik ez düt haboro
heldü da ene tenorea
Anai gehienarengana
atzamanen düt bakea.

16. JELKALDIA**Luis Ligetx****141-**

Indarrik ez dut haboro;
heldu da ene tenorea.
Anaia **gehienarengana**
atzemanen dut bakea.

[zaharrena](#)

AGUR ZUEI ORORI

Heltürrik zait biziari
 kario pakatzeko zorra
 Jesaile hon bat izan niz,
 gozatzez ene denbora
 Mündü hontan üzten dütüt
 Margaita bai eta Sengrat
 Maiana harri bizia,
 zuri esker dira denak

Sorterriaren kitatzean,
 sekulan ez nukean uste
 Larraine bezain, Gamere
 Zihiga nükeala maite
 Berantzen zait ikustea,
 Josefauteko soroa
 Ene bizian beti beitüt
 jarraiki jinkoaren soa

Ama Eüskal Herriari
 nolaz ez azken bertsetak
 Zure mintzaje hori gabe,
 irus den eüskaldünik ez da
 Hitz zoin hunkigarriekin,
 baratze bat hain aberatsa
 Mila hontarzünez josirik,
 kolore nasairik bada
 Ordu da erlen deitzeko
 nausia hiltzez badoa
 Ene arima joaiten da,
 presta dolümin ezkoa

Berantzen zait ikustea,
 Josefauteko soroa
 Ene bizitzean beti beitüt
 jarraiki jinkoaren soa
 Züekilan laket izan niz,
 bizia llabür bena goxoa

AGUR ZUEI ORORI

Heldurrik zait biziari
kario pagatzeko zorra.
Jesaile on bat izan naiz,
 gozatzez ene denbora.
 Mundu honetan uzten ditut
 Margaita bai eta Sengrat.
 Maiana, harribitxia,
 zuri esker dira denak.

Sorterriaren **kitatzean**,
 sekulan ez nukeen uste
 Larraine bezain Gamere
 Zihiga nukeela maite.
 Berantzen zait ikustea
 Josafateko soroa,
 ene bizian beti baitut
 jarraiki Jainkoaren soa.

Ama Euskal Herriari,
 nolaz ez, azken bertsetak.
 Zure mintzaira hori gabe
uros den euskaldunik ez da.
 Hitz zein hunkigarriekin,
 baratze bat, hain aberatsa,
 mila ondasunez josirik,
 kolore **nasairik** bada.
 Ordu da erleen deitzeko;
 nagusia hiltzez badoa.
 Ene arima joaten da,
 presta dolumin-**ezkoa**.

Berantzen zait ikustea
 Josafateko soroa,
 ene bizian beti baitut
 jarraiki Jainkoaren soa.
 Zuekin laket izan naiz;
 bizia llabur baina goxoa.

garesti
 mailegu-hartzaile

utzi

zoriontsu

ugari

argizari

Maiana Arhanzet**142-**

Ustegabeen joan zaikü
 beti bezala isila
 Azken indarrak otoiztez
 kiristi hon badabila.

Madalena Ligetx**143-**

Ez nüan uste hain gazterik
 galdüko nüala anaia
 Xiberoak egün badü
 etenik bezala süa.

144-

Beti inbeatü deiot
 Bere bizitze aberatsa
 Dolützen zitan halerik ere
 hain goizik dü azken hatsa.

Ohitx**145-**

Holako kiristino txütak
 merexi dü meza propia
 Zoin eder izan behar düan
 apezaren perediküak.

Maiana Arhanzet**142-**

Ustekabeen joan zaigu,
 beti bezala isila.
 Azken indarrak otoiztez,
 kristau on badabil.

Madalena Ligetx**143-**

Ez nuen uste hain gazterik
 galduko nuela anaia.
 Xiberoak egun badu
 etenik bezala sua.

144-

Beti inbidiatu diot
 bere bizitza aberatsa.
 Dolutzen zaidan, halarik ere,
 hain goizik du azken hatsa.

Ohitx**145-**

Horrelako kristau zutak
 merezi du meza propioa.
 Zein eder izan behar duen
 apaizaren predikuak.

17. JELKALDIA**Constantin sendagilea****146-**

Orai Luis joanik dügü
izkiribüak zaizkü baratzen
«Euskalduna» astekarian
haren kobla da agertzen.

Etxahun Iruri**147-**

Buneta eta txapelak
jente hanitx dütü hunki
Hitz hunkigarriekilan
halako egin dü prunki.

Madalena Ligetx**148-**

Haütatü behar banüan
bat banian zinez maite
100 urteko aüzoari
Elisabet Etxemaite.

17. JELKALDIA**Constantin sendagilea****146-**

Orain, Luis joanik dugu;
izkribuak zaizkigu **baratzen**.
«Euskalduna» astekarian
haren kobla da agertzen.

geratu

Etxahun Iruri**147-**

"Boneta eta txapela"-k
jende anitz du hunki.
Hitz hunkigarriekin
halako egin du **prontoki**.

ugari

Madalena Ligetx**148-**

Hautatu behar banuen,
bat banian zinez maite:
100 urteko auzoari
Elisabet Etxemaite.

ELISABET ETXEMAITE

Txori bat adarrean zelarik kantatzen.
 Xahar bilo xuri bat hari zen behatzen ;
 Leheneko denboraz zelarik oritzen,
 Amets goxo batetan zen alageratzen
 Orai harentako dütüt bi kobla moldatzen.

Heben ohoretan den emazte xaharra,
 Larraineko alaba, txori menditarra ;
 Sortzetik üken züan behar zen indarra,
 Egün heltü izan da, plegatüz bizkarra,
 Elisabet Intxauspe ehün urtetara.

Ehün urte beterik, hori da adina!
 Ohoreen jabe da adin hori düana,
 Korputza ahal züan zilarrez egina,
 Badü bilo xuri bat zeta bezain fina.
 Biba xahar eijerra, gure erregiña!

ELISABET ETXEMAITE

Txori bat adarrean zelarik kantatzen,
 zahar **bilo**-zuri bat hari zen **behatzen**.
 Lehengo denboraz zelarik oroitzen,
 amets gozo batean zen alegeratzen.
 Orain, harendako ditut bi kobla moldatzen.

Hemen ohoretan den emazte xaharra,
 Larraineko alaba, txori menditarra.
 Sortzetik ukan zuen behar zen indarra.
 Egun heldu izan da, plegatuz bizkarra,
 Elisabet Intxauspe ehun urtera.

Ehun urte beterik, hori da adina!
 Ohoreen jabe da adin hori duena.
 Gorputza ahal zuen zilarrez egina,
 badu bilo-zuri bat zeta bezain fina.
 Biba zahar ederra, gure erregina!

[ile / entzun](#)

18. JELKALDIA

Madalena Ligetx

149-

Frantses pikorik ere ez dü
emaiten ene semeak
Zin egin izadazüe
eskolatüko düzüela.

Margaita Garat

150-

Ez inkieta horrentako
Ikasteko gale bada
Gük isuriko deiogü
jakobinismoaren xenda.

151-

Lehen urtean ez inkieta
jinen zaio bedajoa
Bena xüxentüko dügü
arin beitügü besoa.

René Lassalle

152-

Gazna honaren maneran
Eüskara behar da jakitü
Frantzian maite ogia
aldiz gazna hügü dügü.

Margaita Garat

153-

Oraidanik aitetamak
frantsesez ari haurrekilan
Guri esker lotsa dira
frantsesa ezin düela eman.

Marie Larricq

154-

Kültüran orano desafio
frantsestü behar pastoralala
Egün hori jinen delarik
irabazirik dikeagü gerla.

155-

Egün hori hüilan dügüla
ez egin odol gaixtorik
Jinen delarik ikastola
ez dükek haboro indarrik.

Kattalina

156-

Entzün düzüeia lagünak
zer friuntan errejentak
Eüskaraz erauntsi düanari
eman dütüan zifletak.

18. JELKALDIA

Madalena Ligetx

149-

Frantses **pikorik** ere ez du
ematen ene semeak.
Zin egin iezadazue
eskolatuko duzuela.

Margaita Garat

150-

Ez inkieta horrendako,
ikasteko **gale** bada.
Guk isuriko diogu
jakobinismoaren **xenda**.

151-

Lehen urtean ez inkieta,
jinen zaio **bedajoa**,
baina zuzenduko dugu,
arin baitugu besoa.

René Lassalle

152-

Gazta onaren maneran,
euskara behar da **jakitu**.
Frantzian maite ogia,
aldiz gazta higuin dugu.

Margaita Garat

153-

Oraindanik aita-amak
frantsesez ari haurrekin.
Guri esker **lotsa** dira
frantsesa ezin dutela eman.

Marie Larricq

154-

Kulturan, oraino desafio:
frantsestu behar pastoralala.
Egun hori jinen delarik,
irabazirik **dikeagu** gerra.

155-

Egun hori hurran dugula,
ez egin odol gaixtorik.
Jinen delarik ikastola,
ez **dikek haboro** indarrik.

Kattalina

156-

Entzun **duzueia**, lagunak,
zer **friuntan** errejentak
euskaraz **erauntsi** duenari
eman dizkion zapladak?

apur

gogoz

bide

tripa-betekada

neurriz jan

beldur

izango diagu

izango dik
/ gehiagoal duzue
arineketan
jardun

Ximun**157-**

Egia dük biltzen dügüla
bena ez dea merexitürik?
Eüskara debekatürik ginian
hihaurek «bai bai» erranik.

Teija**158-**

Lehenik eta bat
ez hiz beti potiko abilla
Ez düka etxen entzünik
bi baiek «ez»-a düela.

159-

Behar ginikek gahatü
eta tinkatü hagina
Bizkarrez jarriko denean
degoili urde zikina.

Maddi**160-**

Gaitzitü ala mankatü
ez dakit zer den pisena
Bena jakin ene haurrek
Eüskara dükeela lerdena.

Ximun**157-**

Egia duk biltzen dugula
baina ez da mereziturik?
Euskara debekaturik genian
hihaurk «bai, bai» erranik.

Teija**158-**

Lehenik eta bat,
ez haiz beti mutiko abila.
Ez **duka** etxean entzunik
bi baik «ez»-a dutela?

159-

Behar genikek **gahatu**
eta tinkatu hagina.
Bizkarrez jartzen denean
degoila urde zikina.

Maddi**160-**

Gaitzitu ala **mankatu**,
ez dakit zer den pisuena.
Baina jakin ene haurrek
euskara duketela lerdena.

al duk

buhatu, bizitu

lepoa moztu

zuritu

19. JELKALDIA**Madalena Ligetx****161-**

Ene denbora igaranik da
gaüza franko zait dolützen
Elizan baizik ez düt nik
ene botza entzünarazten.

162-

Halerik ere irus eramaiten düt
ene heinean bizitzea
Emazte haboroixeak beno
ederrago nūan zortea.

19. JELKALDIA**Madalena Ligetx****161-**

Ene denbora igaranik da;
gauza franko zait dolutzen.
Elizan baizik ez dut nik
ene botza entzunarazten.

162-

Halarik ere, irus eramaten dut
ene **heinean** bizitzea.
Emazte haboroixeak baino
ederrago nuen zortea.

egora
gehien

HILTZE KANTOREA ZERTAKO

Zertako beharturik nintzate,
xenda baten haütatzera
Zertako hain gaitz ere lizate
haütüetan bermatzea
Barneko minen hedatzea
galbide bat lizatea?
Kriminel bat nintzatea,
ez niza besteak bezala

Memento hau lüzaz egürüki düt,
nori zer erran 'ta nola
Ene ametsetan ere hain üsü
bizitü düdak hor dira
Barneko minen hedatzea
galbide bat lizatea?
Kriminel bat nintzatea,
ez niza besteak bezala

Ari niz ere nola egin düdan,
hain lüzaz begiratzeko
Biharko pusatü nahi nuke,
bena ez niz hor gibeltzeko
Barneko minen hedatzea
galbide bat lizatea?
Kriminel bat nintzatea,
ez niza besteak bezala

Txorta bat izan nahi nuke,
ühaitz hur-jauzien erditan
Etxetik hatüak hortü,
eta biziz kanbiatzea
Kriminel bat nintzatea,
gaixtokeria lizatea
Ez düt arrapostüa

HILTZE KANTOREA ZERTAKO

Zertako beharturik nintzateke
xenda baten hautatzera?
Zertako hain gaitz ere litzateke
hautuetan bermatzea?
Barneko minen hedatzea
galbide bat **litzateke**?
Kriminal bat **nintzateke**?
Ez **naiza** besteak bezala?

Memento hau luzaz **iguriki** dut,
nori zer erran eta nola.
Ene ametsetan ere hain usu
bizitu dudak hor dira.
Barneko minen hedatzea
galbide bat litzateke?
Kriminal bat nintzateke?
Ez naiza besteak bezala?

Ari naiz ere nola egin dudan
hain luzaz begiratzeko.
Biharko **pusatu** nahi nuke,
baina ez naiz hor **gibelatzeko**.
Barneko minen hedatzea
galbide bat litzateke?
Kriminal bat nintzateke?
Ez naiza besteak bezala?

Txorta bat izan nahi nuke,
uhaitz ur-jauzien erdian.
Etxetik **hatuak** ondu,
eta biziz kanbiatzea.
Kriminal bat nintzateke?
Gaiztakeria litzateke?
Ez dut **arrapostua**.

zergatik
bide

al litzateke
al nintzateke
al naiz

itxaron

bultzatu
atzera egin

ibai
maleta

erantzun

20. JELKALDIA

Xan Alkhat**163-**

Agur hor zideen lagünak
berriz deitzen naü koblakak
Zertako ez algarrekin
sortü bertso eskola bat?

164-

Xiberoko botzan badüt
sala bat ontsa hortarako
Hebenko nahiantak oro
jinaraz ditzagün hordago!

Mixel Etxekopar**165-**

Zentako ez hirekin nük
bena güti diat sinesten
Xiberoan aspalditik
koblaka beita ahazten.

166-

Eüskara ere karriketan
güti baizik ez entzüten
Koblakan ari behar dea
Eüskara ez delarik egarten?

167-

Frantximent horiek düe
xüxena bilo arroila
Eüskara porroki nahiz
hedatü düe mardalla.

Ramuntxo Christy**168-**

Mintzajea süstengatzen
egia dük heben ez dela
Bena sinetsi nahi diat
baditiagü bi ikastola.

169-

Horik dütük tresna ederrak
ikastola, gaü eskola
Bena eüskararen ikasteko
pakatzez ez da normala.

Xan Alkhat**170-**

Betidanik izan dira
politikariak kurrunka
Bena ez dügüa üken
merexi dügün politika.

20. JELKALDIA

Xan Alkhat**163-**

Agur hor zareten lagunak,
berriz deitzen nau koblakaritzak.
Zertako ez elkarrekin
sortu bertso-eskola bat?

164-

Xiberoko Botzan badut
sala bat ontsa horretarako.
Hemengo **nahiantak** oro
jinaraz ditzagun, hordago!

Mixel Etxekopar**165-**

Zerendako ez? Hirekin nauk,
baina gutxi diat sinesten,
Xiberoan aspalditik
koblakaritza baita ahazten.

166-

Euskara ere karriketan
gutxi baizik ez entzuten.
Koblakaritzan ari behar **dea**
euskara ez delarik **egarten**?

167-

Frantximant horiek dute
zuzena bilo-**arroila**.
Euskara **porrokatu** nahiz,
hedatu dute **mardaila**.

Ramuntxo Christy**168-**

Mintzaira sostengatzen
egia duk hemen ez dela.
Baina sinetsi nahi diat.
Baditiagu bi ikastola.

169-

Horiek dituk tresna ederrak
ikastola, gau eskola,
baina euskararen ikasteko
pagatzez ez da normala.

Xan Alkhat**170-**

Betidanik izan dira
politikariak **kurrunka**.
Baina ez **dugua** ukan
merezi dugun politika?

hautagai

zergatik

al da
erabilifrantses
ileko marra
hautsi
esamesazurrunga
al dugu

Mixel Etxekopar**171-**

Dantza jadanik emazteek
salbatü düe doi-doia
Mintzajeari ere haier esker
elkiko zaio erdoila.

Mixel Etxekopar**171-**

Dantza jadanik emazteek
salbatu dute **doi-doia**.
Mintzairari ere haiei esker
ilkiko zaio herdoila.

ozta-ozta

atera

SATANAK**Phaleta****172-**

Finitzen ote da pastoralak
betiko ber lezionearekila
Euskaldünak dütük bürüzagi
ta gü debruaren zerbütüan!

Khüloa**173-**

Pastoralaren izkiribazaleak
espanto hanitx egin ditzak
Eia ostatü gibelean
dolützen zaitzonez bere hitzak!

Phaleta**174-**

Ez dik hüilanik ere egin
Ligetxek merexi düan historia
Politika eta bla bla
ez da pastoralaren kargüa!

Khüloa**175-**

Ütz itzak kaka bezain merke
bihar deja ahatzerik beita
Gü aldiz ondoko urteetan
berriz hor gütükek Phaleta!

SATANAK**Phaleta****172-**

Finitzen ote da pastoralak
betiko ber lezioarekin?
Euskaldunak dituk buruzagi
eta gu debruaren zerbitzuan!

Khuloa**173-**

Pastoralaren izkribatzaileak
espantu anitz egin dituk.
Ea ostatu **gibelean**
dolutzen zaizkionez bere hitzak!

Phaleta**174-**

Ez dik hurbiletik ere egin
Ligetxek merezi duen historia.
Politika eta bla-bla
ez da pastoralaren kargua!

Khuloa**175-**

Utz itzak kaka bezain merke
bihar ja ahantzirik baita.
Gu, aldiz, ondoko urteetan
berriz hor **gaituzkek**, Phaleta!

harropuzkeria
atzean

izango gaituk

AZKEN PEREDIKUA

176-

Koblaka eta pastoralak
 üztartürik betidanik
 Eznerik gabe ez beita
 txestazten ahal gaznarik.

177-

Mardo, Etxahun, Musenak
 koblaka hebenko doitü
 Ligetxetarik landa aldiz
 Frantsimengoari gira koitü.

178-

Ezagütü düenek erranik
 Ligetx zela jokü hortan
 Xiberoan beno haboro
 bürüzagi Eüskal herrian.

179-

Egün entzün kantoreak
 Ligetxen kobletarik elkirik
 Esperantxa dügü ordüan
 ediren dela plazerik.

180-

Kantore hontzale hoberenak
 izan dira koblazale
 Desagertze honekilan
 xiberotarrak galtzale.

181-

Zertako arren ez dügü
 koblakari haboro entzüten
 Zazpi probinzietan gira
 ofizio hortan azken.

182-

Ligetx guri beha bahiz
 igor izagük indarra
 Buneta ala txapela
 hor dügü musde beharra.

183-

Xiberoa bere historian
 ez da beti izan zainhil
 Egün jeikitzen bagina
 ta mintzajea arrabil.

184-

Esker mila dereizüegü
 gustüko üken düzüener
 Eta bi mila aldiz
 gustüko üken ez düener.

AZKEN PEREDIKUA

176-

Koblakaritza eta pastoralak
 uztarturik betidanik,
 esnerik gabe ez baita
 dastatzen ahal gaztarik.

177-

Mardo, Etxahun, Musenak
 koblakaritza hemengo doitü.
 Ligetxetarik landa, aldiz,
frantximantgoari gara **koitu**.

178-

Ezagutu dutenek erranik
 Ligetx zela joko horretan
 Xiberoan baino **haboro**
 buruzagi Euskal Herrian.

179-

Egun entzun kantoreak
 Ligetxen kobletarik **ilkirik**.
 Esperantza dugu orduan
ediren dela plazerik.

180-

Kantore ontzaile hoberenak
 izan dira koblazale.
 Desagertze honekin
 xiberotarrak galtzaile.

181-

Zertako, **arren**, ez dugu
 koblakari haboro entzuten?
 Zazpi probintzietan gara
 ofizio horretan azken.

182-

Ligetx, guri **beha** bahaiz
 igor iezaguk indarra.
 Boneta ala txapela,
 hor dugu **musde** beharra.

183-

Xiberoa bere historian
 ez da beti izan **zain-hil**.
 Egun jaikitzen bagina
 eta mintzaira **arrabil**.

184-

Esker mila **dizuegu**
 gustuko ukan duzuenei,
 eta bi mila aldiz
 gustuko ukan ez dutenei.

frantsestasun
 / zaletu

gehiago

irten

aurkitu

bada

entzun

jaun

odolgabe

berriro bildu

ematen dizuegu

185-

Pastoralaren abentüra
bizi euskarari esker
Dinamika begirat eta
iganaraz ondokoer.

Dinamika begirat eta
dagüna ützt Barkoxtarrer!

185-

Pastoralaren abentura
bizi euskarari esker.
Dinamika **begiratu**, eta
iraganarazi ondokoei.

Dinamika begiratu, eta
daugina utz barkoxtarrei!

zaindu

datorrena

GURE SORLEKUA

Ibar esküinaren mügan,
ez etxit Basabürüan
Ez Arbaila, oihanean,
egün gira Gamere-Zihigan
Aspalditik gure herrian
bizizale herexak badira
Igorri deiküe mezüa
tintatzez kabale karbetan

Nola ez aipa hain famatü,
gure lamiña ziloa
Orhit gitean Frantxoa,
Madalena eta Elisa
Ligetxen aurrideak lüzaz,
urte oroz jiten zirela
Xiberotar hanitx bezala,
goxoki mainü hartzera

Ttipi dena eijer beita,
erran zahar baten arabera
Ordüan gure sor leküa,
ezinago, ezinago, da ederra

Laborantxak heben ttipi,
beti danik lürra erabili
Kartielean ordoki güti,
bardin denak baliarazi
Bena Xibero güzian bezala,
etxalteak hüsten ari
Baratzen direnak süstengi,
herria lüzaz dadin bizi

Ttipi dena eijer beita,
erran zahar baten arabera
Ordüan gure sor leküa,
ezinago, ezinago, da ederra

Luis Ligetx eta Etxahun,
Iruriko bere lagüna
Laket ziren algarrekin,
koblaka jei antolatzen
Erakatsi guri mintzajea
eta lürraren maitatzen
Ez ahatz horien jabeak,
oraiko haurrak direla

Ttipi dena eijer beita,
erran zahar baten arabera
Ordüan gure sor leküa,
ezinago, ezinago, da ederra

GURE SORLEKUA

Ibarresküinen mugan,
ez **etxit** Basabürüan,
ez Arbaila oihanean,
egun gara Gamere-Zihigan.
Aspalditik gure herrian
bizizale herexak badira.
Igorri digute mezua
tintatzez **kabala karbeetan**.

Nola ez aipa hain famatu,
gure lamina ziloa.
Oroit gaitezen Frantxoa,
Madalena eta Elisa,
Ligetxen haurrideak, luzaz,
urte oroz jiten zirela,
xiberotar anitz bezala,
gozoki bainua hartzera.

Txiki dena eder baita,
erran zahar baten arabera,
orduan gure sorlekua
ezinago-ezinago da ederra.

Laborantzak hemen txiki,
betidanik lurra erabili.
Kartierean ordoki gutxi,
berdin denak baliarazi.
Baina Xibero guztian bezala,
etxaldeak husten ari.
Baratzen direnak sustengatu,
herria luzaz dadin bizi.

Txiki dena eder baita,
erran zahar baten arabera,
orduan gure sorlekua
ezinago-ezinago da ederra.

Luis Ligetx eta Etxahun,
Iruriko bere laguna,
laket ziren elkarrekin
koblakaritza-jai antolatzen.
Irakatsi guri mintzaira
eta lurraren maitatzen.
Ez ahantz horien jabeak
oraingo haurrak direla.

Txiki dena eder baita,
erran zahar baten arabera,
orduan gure sorlekua
ezinago-ezinago da ederra.

inola ere

biztanle / aztarna

abere / koba

esaera

auzo / zelai

geratu